

Munitibar.

Entzun dodanez beñola «Txindufia» ixen ordiagaz idatzi ebana, nor dan jakitiaz asko poztu naz. ¡Ointxe bai ointxe esango neuskiozala nik oferi egi gafatzak ¡baña beti ez jardutiafen, ixilik laga biar dautsot. Ez, baña, gauzatxu bat esan barik: ufengo iñoiz idaskortza artu ta... Befeño'ko norbait aiatu bear dozunian, «or Befeño aldian» barik; «emen Befeño aldian» esan egizu. Eta eztaidan aufera geyago jafaitu.

Gotzon bat donokira.

Ila onen 6.º gn. Jon euzkel-ixen begikuagaz ugutzau eben umetxua, jaunak beren ondora eruan eban ugutzautza 4 gn. egunian. Atsekabeen lagun natxakue beren guraso aberkide onari.

«Goia-gori»ri.

Poz-pozik irakufi neban lengo asteko «Euzko» jel-asterokuan diñozun.

Zeuk diñozun bez noizik bein «Euzkon» be idaztia gura dozu; ¿baña zelan da ori? Eztozu ba ikusten EKIN'ñera be eldu ezinda nabilala?

Andie da gero zure edesti edo kontuba; zeu, or zabilza zeure idazki ta abar «Euzko» gustian be kabidu ezinda, ta... ¿ondio be neri dei egiten daustazu? Zeuk lagunduten badaustazu noizik bein EKIN onetan obeto egingo dozu. Ofelan biarbada neu be «Euzko»ra elduko nintzake bitarteren bat euki ezkerro ta.

Miren alabak.

Euren jaunartze ilerokua egiñaz ospatu eben beti legez gure Miren Alabak euren jaya.

ALDAOLEA'TAR KOIKILE
E. A. B.

Izkia zuk baxen argia balebe idazle gystiak, lan gitxiago izango neuke. Gauza bat oartuko dautzu ofaitiño; itzen azkenengo izkia gitxi-gitxitan izaten da s, geyenetan z. Egun bakotxean gauzatxu bat ikasi ezkerro, laster euzkal-idazle bikañak ugari izango doguz. Artez.

Agur maitekor bat eta besaukada samur bat opa dautzuben asteroko, «EKIN» irakurle idazlari eta batez bere Artezkarri jaunari; baña aufera jafaitzeko Artezkarri jaunaren baimean eskatzen dot eta ueste dot toki apurtxu bat itxiko daustala, (1)

Baita zorijon ugarijak emon biar dautsatez neure lagun maite dan Aldaolea'tar Koikile idazlari zintzuari; baña esango dautzuz jafaitzeko aufera, ederto egiten dozu-ta.

Ezpiar baltza Malukizar'tar Anestasi ta beren emazte zintzuak ixan eben Jon jayopafitxuba, betiko donokiratu yake G. B.

Igaro dan estean Aldaolea'tar Koikile'esatan eban asteroko onetan jayopafitxuofen elbitzie baña zeruratu yake.

Geixorik egonda, txaidien ikusten doguz Zenigonaandia'tar Irene eta Pastore. Azkenengo au oin be makal samar dago. Arin arin osatutie opa dautsegu eta zorijonak.

Orain banua amaitzera eta ufengoan geyago, gatx be egiten yat-eta beraz ufengorarte. Agur.

IXEKO BAT

(1) Beti nago baimenak emoten. Baimenak emoten dira baña, lanerako gogorik emoten ez dakit-edo. Askok asi ta beriala isten dautse. Jafaitu egin biar da, ikesteko ta erastasuna lortuteko.

Lafauri.**«Solubepe»ri.**

Agur adizkide. Irakufi nebazan zeuk idatziriko izpafak eta euren artian jeurti zeustan afikada galanta, diñozunian atsekabetuta zabilzazela inguru onetako txifitxifijak ixilduta gabiltzazelako, nigatik zugoien eran lotan nagoela. Lotaldi luzetxua ixan da bai, baña, itxartu nozu zeure ifau-

nagaz eta ifaunak erantzutekuak ixaten diran lez, emen nago gertautu, baña tamalez ezin dodaz betetu lengo utzak; ba orain ipiñiko ba'neuke ordutik ona jazo diran jazorikuak, eleukie eukiko lekuriñ danak jafiteko. Pozik geldituko nintzake asteroko onen agintarijak ondo artuten ba' daustaz onek izpafok eta nire ezizenagaz bafiro ixenpetuten itxifen ba' dauste. (1)

Ludi onetako ipuiña: bat juan beste bat etori:

Juan yakun bai, Olegaria anderea emen irakasleme ainbat urte igaro ebazana; benetan irabaziko atzedena artuten juan da, eta aren orde, irakasleme gaste bat bialdu daukue. Anderaño lirain eta gustiz ona da bera.

Agura eta ondo etofija bijari.

Lugintza.

Gogor dabiltz basefitafak artoa eraifeiko arazuetan; egualdijak be lagunduten dautse zerbait, eta Jaungoikoaren laguntasunagaz aufera dozay euren lanetan.

Berialaxe igarten da, soloetan noiz dagon lana; eztago irakastolari eta jafarijari itaundu baño, irakastolan eta «Dotriña»n zenbat «sasi-estola» egiten dabezan.

Dana da «ifaufian egonaz. jauna». Bai ba, mutil badingotxuak ixan afen, lantzian bein gurasuari lagundu biar ixaten dabe ta...

Emerando'n.

Emerandosfak atsekabez beterik egon afen «Asensiño» yayak amaitu diazelako, pozik dagoz, ba eldujakoe (ordua ixan da) tximist-argija.

Orain ikusiko dabe, zelako bialfak euki dabezen orain arte, kurtzulu, karbuo, gesolina edo petrolioizko kankafuak ezin pizturik ibili biar, eta ganera argi triste eta osasunaren kaltez ixaten ziranak, ¡bastefen batera juango dira zekulakol!

Izpar-baltza.

Igaro zan barikuban il zan Alegri'ko Kosm' mutil gastia.

Atsekabian lagunduten dautsegu bere etxeuari.

«Paskuak».

Ganian daukaguz efiko jai ospetsubak, datofen igande eta astelenian beste urtian letxe edo biar bada efomeri andijagoak izango dira.

TALU

(1) Bai, gizona, bai; zeuk gura dozun ixenagaz. «Taluko Mirua» zan, baña, Lafauri'tik idazten ebana. Mirua pagadian gelditu da noski.

Bakio.**Bermeo'ko «Neu-nai»ri.**

Agur zeuri Neu-nai maitea. Ikusi dot eta poz pozik ikusi be nire azkenengo akulukiarik itxartu zaituzala. Baña «Neu-nai» aizkide, oker ulertu daustazu «aguretute.» Irudiz esandakoa, au da (en sentido figurado), itzitez (literalmente) artu daustazu. Bai-nekian 25 urte ingeruko mutil gaste, gordiñ eta «EKIN»eko idazleme bateri baño geyagori begia betetako erakoa zintzana.

Emaztegei barik zagozala diñoztazu, eta emetik on bat bilatuteko. Emen politik asko ba-dok; ¿baña non idoro on asko, berbata bakoak? Ara, ¿ez dok irakufi artezkarri agurgafiak iragafitako idazleen batzafa? Ba, batzar ontan «EKIN»eko idazleme eder eta onik asko izango dira bai, eta nai badok begiko egiten dan bateri deitxu bat egitea, lagunduko aut.

Bagilaren 17.º gn. eguna ixentau daustak alkar agurtuteko, baña or izango dan notintzan nola demontre alkar aurkiñu.

¡¡Gora gure E. A. B. eta euzkeria!!

Abertzaletasunari eta gure ele zafari dagokiozan arazuetan onurarik geyen E. A. B.'koak egiten dabela

autortutea, egi biribila esatea dala, efi onetan, edonok esango dau. Aspaldion lan bafi eder bateri diñartuten dautsoe. Gastetxuak euzkera irakurten eta idatziten irakasteari. (1) Itxaroten dot laster euzko-idazle txorta galanten bat «EKIN»en idatziten asiko dala. Premia be bai dago, Eleiz-abesti gastelafak euzkerateko edo... Urtean asikeratik azkenaraño; Pankorbo aldeko itzez egindako eresertiak safitxu egiten dabe gure belafietan durundu. Bai ba bost karamiñeru be bai doguz gure artean -eta.

IBAI

(1) Orixe da gaur egunian euskalfetan egin leikezan lanetatik edefenariako bat. Guk aurtien egingo dogun kristiñau ikasbide egunan umiak irakurten eta idazten aztertuko doguz.

Mañari.

Biar-biafeko atsedan aldiya egin ostian, ementxe nator bafiro be efizpar txortatxubaz asteroko mañe onetara. Neure gurarija, len lez astero idatzitia da; baña ori ezin ixaten ba-dot, al-dodanetan idatziko dot.

Lorak.

Ofila'ko loraen elizkixunak, iluntzeko saspietan egiten dira; ta eurretan, gure neskatubak Andera Miren'en aintzarako abesti edefak abestuten ditubez.

Etzia bariztu.

«Elexondo» edo «sakristau etxia» lengo egunetan bafiztu egin da-be; ta alako polito geratu da. Etxe ofek, egindako lana biar-biafekoia ixan dau; aspaldiz jausten egoan-eta.

Ezkontza.

Igaroriko larunbatian ezkondu zan, Goi'tar Pantzeska (Patxiko sakristauba) Mendiola'ko neskatila bategaz.

Zorijonak eta ondo-ondo bixi.

Juan etorijak.

—Bilbao'tik etofi zan Belakortu'tar Paskale anderea.

—Baltzola'tik, Etxebafia'tar Paskale neskatila begikoa.

—Igandez agurtu genduzan Zubiri'tar Bingen eta Beristain'dar Iñaki aberkide zintzuak.

Bermeo'ra.

Bermeo'ko batzokijaren zabalgunde-jaira, emetik be lagun askotxo juango dala diñue. Ia ba, ia ba, juan, eta egun edefaz igarota zer kontau on asko ekafi.

MAÑARIKO

Asko poztu naz, Mañariko langile zintzo ori, ta ni lez beste idazkide gustiak be egingo dira, zeu bafiro lanian ikustiaz. Ez lafegirik egin, ori buru-makaltasan ori gustiz osatu arte. Laster izan daitea eskatuten dautsoe Goiko Jaun onari. Aurten EKIN'en idazle batzafa egin biar dogu. Ia orduan txairo-txairo ta bizkor etorten zarian.

Mendexa.**«Gixaburu»ra.**

Igaro dan igandean abertzaleak eratutako jai polit bat egon zan efi ofetan eta notintza andia eldu gñian bertara. Goizean-jaupa nagusia bertako ta Lekeitio'ko Batzokiko aldrak abestuta; aren ondoren Lekeitio'ko espata dantzari ta Aulestia'ko poxpoliñak ederto dantzaren egin eben. Afatsaldeko eleizkizunaren ondoren, mitiña ez zan ospatu, baña Enbeita'tar Sabin'en olerki batzuk entzun genduzan; eta anai arteko bafiketa polit bat be egon zan; gure «Abenderi» ta «Endaitz»ek egi andiak esanagaz ainbat bafe eragin euzkuen. Azkenez eusko abendaren ereserkija abestu; eta efomerija apur bat egon zan. Mendexar'ak alkaferata batun da pertzebe jana euki gendun eta ofetarako eskerak emoteko gagoz Antonijo'ri.

Ixidor Deuna.

Ila onen 15.ºean ospatu ta geure efan, beti egiten dan eran, lugin guztiok zaindari artun bear leukien Ixidor Deuna'ren eguna. Eleizkizun zoragarrijak euki doguz: jaupa nagusija bertoko

gazteak abestuta; txonitz edefa be entzun genduan Lekeitio'ko Don Pedro gastia txonizlari dala; eta geure «armoniojoren» soñu edefagaitik zer esango dogu ba?... Bakafik, Lekeitio'ko albaiteriarren eskuak bizkor ibili zirela, bai goixean eta bai afatsaldean, eta ori gaitik eskerak emen biarian gagozala; geure jaupari Jauna eta Albaiteria'ri.

Jaupa ondoren, beti oitu dan eran, pelotan jokatu dabe bertoko gastiak; eta ofegaz ordutu gozo bat igaro dau bertako notintzek. Afatsaldian, besperak ondoren, tanbolin txistuaren soñu-agaz auzeku ta efomerija edefa egin ziran. Oso egun alaia igaro genduan.

Eleiz deyak.

Laka'tar Jule, arapain'go mutil bategaz. Zorijonak zueri.

Asterikara.

Datofen iganderako, Ondarua'ko abertzaleak eratu dabe jai polit bat; eta Lekeitio'tik eta bertotik juatekotan dagozenak be asko izan bear dabe. Aupa gazteak! gertau danok edo zortziretan; edo ordu biretan urteteko eran.

Del bat.

Gure euzko-batzokijaren dago bilpide bat zabaldua Lafamendi'tar Antonio zanaren (G. B.) sendiarentzat; ofegaitik dei dagitzuet Mendexar guztiok; zoritxafian alkar lagundutera biartuta gagozelako.

AREITZ PE

Lengua polito egoan egon, baña ezin lekuri egin izan neban, ta gero... izpar zafak ezin ipini.

Mungia.**Deun Ixidor jaya.**

Nekazari Zaindajariaren eguna urtero lez amafetako mesa ospetsubaz ospatu zan. Sindikato Agrikola'kuok danbolin, txistu zuziri otsian amafetako jaupara, euren ikufiña gidari zala, juan ziran. Ikufiña (banderia) Afolat'ar Jagoka (Santiago) «Txomiñene»kuakeruan eban, ikufin ostian Bazkintza Artezkarrija (Diretibia) eta bazkide gustijak.

Itzaldija Itza'tar Ander jaunak edertotxu egin eban, euzkera garbi-ga bija eta ulertefeza jaupari agurgafi onek darabilana; itzaldi sakona, argiro azaldu eban ludi mundu onetako gauza gustijak, uskerien -uskeri ta ezerez utsak dirala: geure betiko zorijon eta gentza, donokijan dagola. Deun Ixidor'en onoinen zerutafak azaldu eta jafabidetzat imiñi euskun.

Meza ostian, Sindikato'ko basefitafak arda gozo eta pastelak gurañejan, perija ikusi, eta oturuntza (barkete) edefaz ospatu eben euren eguna.

Umoro edefaz befogetamaren bat batzarkide batu ziran. Maya onetsi edo bedekatu eta gero... agiñek zofostu: jai-bifartekuak: azeitunak eta antxobak, suku edo sopia; iru lapikoko; lebatza bazijan espafaguaz; artxo izter samurek efeta eta urasa edo letxugiaz. Gozuka luziak eta bofobiñak, ufesagar eta baba-seruke aundijak, (an egon zan batek esan daustaz onek, nik asmaurikuak eztera), arda ona, umoro obia, akeña (kafia) txola (kopia) eta txokofa (purue). Bazkari bifartian txistulari ja portau zan. Datofen igandian Begoña'ko erakusketa eta Lugiñen jayetara emendik basefitar askotxu juango da.

Txangua.

Miren-Alaba-Bazkuna'kuen osterea, astelenian, Pasko bigafenez ospatuko dogu; aspaldiko geure gurarija astelenian egi biurtuko da. ¡Au bai poza! Geure abesti, santso, umoro alayaz, bastar gustijak alañuko doguz. Bizkai'ko uri entzutetsubenak ikusiko doguz. Markiña goxeko zortzita erdirako bertan izango gara, Afixinaga'ko Deun Mikel ikertu, efija ikusi eta Ondarua'ra, Antxiña'ko Ama gana zuzenduko gara lenengo, Bera geure gidari, geure Ama ona da-ta. Bertan bazkaldu eta afatsalderako Lekeitio'ra; uri txukun onetan egotalditxuba egin da Gernika'ra.

Irurogei neskatila, basefitafak, geyenak, juango gara; basefiko usaña daroagula baten-batzuk, esango dabe, baña guri ardurarik ez, euzkerea basterik ezta entzungo geure artian.

Bateron batzuko, euzkerea beti darabilgulako, abertzale eta euzkotar benetakuak gariala egikixun gustijetan

erakusten dogulako, atrasaduek gari-ala diñuela? Eneuke trukauko euren auferakuntza eta ilustraziño gustijakilik nere Abefi ezaguera eta mata-suna.

MATE
E. A. B.

Erigoiti.

Agur maitekor eta bezarkada zamur bat opa dautzuben «EKIN» asteroko onen artezkarri idazlari eta irakurle gustijari, baña aufera jafaitzeko Artezkarri jaunaren baimena biar dot eta ueste dot toki apurtxu bat itxiko daustala.

Eta zetan zarie ba emengo «Txindor kume bi» idazlari trebiak? Bein baño eztozue idatzi eta geyagoko barik kuku eginda ostendu zarie. Tira ba, orain udabafijan gagoz eta alaitu, txoritxuok, alaitu gogaztajak zeuen abestijekaz eta urteizu zelaira ainbet ariñen bero onekaz etxia itzala da-ta.

Emakumeal.

Emengo emakumiak asita dagoz Gernikara ostera egiten, Andoni Deunaren egunerako gertakixunak jantzi bafijek egiteko asmoz, eta alan da ze emengo emakumiok apañ-apañ eginda, neu aufenengo nazala. Agiri da jayak uferatuten direna.

«Goixeko ixara»ri.

Izar eder eta argija da eta goixian goix agiri ixaten da bera eta berak geure biotzak alaituten dauz. Emengo emakumiak ikusten doguz-egunoro Jaunartuten eta «Goixeko Ixara»k aitatuten eban emengo emakumiak mai deuneratuten dirala, baña gizasmiak ez dirala juaten urtian bein baño, baña obeto egingo leukie, egunoro eta astero ezpada be, ilero joan bear leukiela ueste dot.

Ufengoan egingo dot obeto eta geyago eta ufengorarte; lenengotxua be bada-ta, lotsa be banaz idazten eta eskatuten dautzuben azketsiteko neure oker unakaitik.

EMAKUME BAT

(1) Lotsa? Gauza on bat egiteko lotsarik ez da biar. Jafaitu egizu ta ikasiko dozu.

Agindu ez baña, beste ixenorde bat artuko bazendu oba. «Emakume bat» Mendata'n daukagu idazle trebia (alper zamaraña) ta etxe baten izen bateko alaba bi... ez da ondo.

Galdakano.**Zori-txaña.**

Igaro zan larunbatean, Merkadiño'n jo eban bein batek txifingutsan datofela, Efementeria'ko auzua dan Zuringa'tar Jagoba, mutil gastia, ta zorijonez gafañtziño zauririk ezuztan egin. Len-bai-len osatu daitea opa dautset.

Erlekez'ko ausotegijan etxe bafj baten lanian dabilera jausi zan amar neurkintik, Jordan'tar Nazari margolarija. Bilbao'ko eritegira eruanda aldi gitxi bafu il zan. ¡Au bai, benetan zori-txaña!

Bekea'ko jaya.

Igandian ospatu zan Bekea'ko auzotegijan, urtero ospatzen dan jayan befizpea. Jayetarako ixentau zan batzordiak egitarau polit bat egin eban; oñezko galapaketea, txifingulari-jan-lasterketea, aufeskuba, txistulari-jak eta dantzaketea, txadonkixun edefak goitik dirala.

Ori baltza.

Igandian il zan Lasao'ko auzotegijan geure auzokide zan Bikandi'tar Pantzeska. (G. B.) Atsekabian laguntzen dautset beren emaste ta senditar guztijori.

«San Miguel»tar Iñaki alde.

Gar andi dago bijar, igandia, Usansolo'ra juateko, «San Miguel»tar Iñaki gaztetxuba erail ebela urteufena ospatzeko, ilbeñi-jai eder bat ospatuko da; ta auxe da.

Goixeko amafetan jaupa nagusija abestuta, ta amayan «Requiem» abestuko da.

Amaika ta erditjetan, albo eritatik eltzen diran gastetxu pifio guztijak lefo bat eginda juango dira uri-ildegira, ta